



Kameleoi nanoak

Munduko narrasti txikienen artean dauden lau kameleoi espezie berri aurkitu dituzte Madagaskarren iparraldean. Lau espezieetan txikiena *Brookesia micra* da; helduak 29 mm luze dira, batzaz beste, ikertzaileek PLoS ONE aldizkarian argitaratu dutenez.

Brookesia micra Nosy Hara izeneko uharte txiki batean aurkitu dute. Hain zuzen ere, ohikoa da halako uharte txikietan, baliabide mugatuak izateagatik, animalien tamaina txikitzea; uharteetako nanismo deitzen zaio fenomeno horri.



SAREAN+



ARG.: © GLAW et al./PLoS ONE